

Carmen Fernandez:

«Ermuan faktore asko dago drogara bultzatzeko»

Pagorbe elkarteak drogomenpekotasunaren prebentzioaren alorrean Ermuan diharduen taldea da eta bertako partaidea dugu Carmen Fernandez.

Emakume horrengana laguntza eske zenbat ermutar hurbildu diren jakitea zaila da baina edozelan ere ez direla gutxi izan esan daiteke.

Ez dauka bulegorik ezta subentziorik ere. Eduki ez arren Carmenek maitasunez eta beso zabalik hartzen ditu bera-rengana jotzen duten guztiak. Beren helburuak bi direla esan liteke. Batetik ahal den guztia egin heroinak har-rapatutako gazteak askatzeko eta beste-tik prebentzioa dela medio beste hainbat gazte ere drogaren dinamika hondagarri honetara daraman bidetik desbideratzea.

Gurasoak konturatu egin behar dira euren laguntzen ez badiete ez dela beste inor etorriko laguntza eskeiniz.



DROGETENITTURRI: Noiztik zabil-tza dogromenpekotasunaren aurka-ko alorrean eta zergatik sartu zinen borroka honetan?

CARMEN: Oso esperientzia hurbil ba-ten bidez hasi nintzen arazo honetaz ja-betzen. Garai hartan, duela hamar urte edo, semealabaren bat drogazale izatea barrutik eraman beharreko gauza zen eta neri tabu horrekin apurtzea tokatu zi-

tzaidan. Lehenengoan informazioa bildu eta batetik bestera mugitu nintzen tera-pia egoki baten bila eta gerora denborak ematen duen esperientziak eta eskar-mentuaz baliaturik besteei laguntzen ere saiatzen naiz.

D: Zer laguntza mota jaso duzu ins-tituzioetatik?


C: Hasieran laguntzak oso eskasak zi-ren. Diputazioak berak jarritako zentroei bakarrik laguntzen zien baina, eskain-tzen zuen terapia ez zen batere ona sen-datze prozesua botiketan oinarrituta ze-goelako. Gu gure aldetik Eibarko 'asis-tenta soziala'ren bitartez 'Patriarca'n ha-si ginen. Komunitate horrek diru lagun-tzarik jasotzen ez zuenez hasieran gastu handiak egin behar izan genituen baina merezi izan zuela uste dut. Dena den, gaur egun heroina utzi nahi duen jendea-ri nik 'Proyecto Hombre' gomendatuko nioke, diru laguntza batzu jasotzen dute eta ez da sartzeko ordainketarik egin be-har. Gainera ondo erizten diot erabiltzen duten terapiari, ze familia ere inplikatzten dute eta hori oso inportantea dela pen-tsatzten dut.

Alkola ere hor daukagu
besteak bezain
kezkgarria guk uste.

D: Nola sortu zen Pagorbe Elkar-tea?

C: Arazo honekin arduratuta geunden herritar batzu bildu ginen drogen arazoa Ermuan handia zela ikusten genuelako. Esan behar da, Ermuan horretara bultzatzen duten faktore asko biltzen direla: langabezia, jendearen sustrai falta, maila kultural baxua, herrian sortzen diren akti-bitateak bultzatzeko Udaletxearen lagun-tza eza, eta beste batzuk. Guzti horrek eragiten du arazo toxikomanietan. Ho-rregatik, arazoa hain zabala ikusirik, gu-re eskutan dagoena huskeria dela pen-tsatzten dugu batzutan. Baina arazoa den-denona delako nik ezer egin ezin du-dala pentsatuz ere ezin gara geratu, zer-bait beti egin dezakegu eta.

Garai hartan, duela hamar urte edo, seme alabaren bat drogazale izatea barrutik eraman beharreko gauza zen eta neri honekin apurtzea tokatu zitzaidan.



D: Nola ikusten duzu Ermua mo-mentu honetan?

C: Badirudi heroina hartzen dutenak lehengoak direla. Kasu berririk baldin bada oso gutxi dira. Gazteek drogatzen jarraitzen dute baina beste modu bate-ra. Orain ez dago pikatzten den jende as-korik baina asko esnifitzen da eta alko-hola ere hor daukagu besteak bezain kezkgarria guk uste. Jendearen kontzientziaren aldetik ere badago hutsune bat. Droga inoren arazo-tzat dauka jendeak eta alde horretatik ez dugu jendearengandik erantzun handirik jasotzen.

Aukera hau aprobetxatuko dut, gai ho-nekin kezkatuta dauden guztiei dei egite-ko Pagorbeko lokalera etor daitezen osti-raletan arratsaldeko 7 etan egiten ditu-gun bileretara. Denok daukagu zer apor-tatu.

D: Bukatzeko, zer esango zenieke seme edo alaba drogazalea duten gu-rasoei?

C: Gurasoak konturatu egin behar dira eurek laguntzen ez badiete ez dela beste inor etorriko laguntza eskainiz. Oso go-gor egin behar duten arren, alde berean maitekorak ere izan behar dira.

PRO

ARRAINDEGIA

arrain freskuak

eta izoztuak

Zubiaurre, 21
Bulegoko Tlf.: 171696
Etxeko Tlf.: 172433
Merkatu plaza.: 174054